

2018
AZAROA

OSTADARRAK LURRA UKITZEN DUEN LEKUA

Edorta Jimenez



ELEBERRI BELTZA

ISBN: 978-84-17065-55-3
ORRIALDEAK: 340
FORMATOA: 13,5 x 21,5
PREZIOA: 19,80 €

“Edorta Jimenezen lanek genero-literaturaren indarra agertzerak erakusten badute ere, idazlea saiatsen da generoetatik urruntzen, eta pertsonaiak baino gehiago giroak osatzen eta gaiari berebiziko indarra ematen”.

Jon Kortazar

Egilearen liburu gehiago:

- Piztien itsasoa trilogía
- San Fermingway
- Stock 13
- Europako mugetan barna



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus



EDORTA JIMENEZ ORMAETXEA Mundakan jaio zen, 1953an. Elektronika arloko LH ikasketak eta Irakasle Eskolakoak egin zituen, Euskal Filologia adarrean. Hainbat lanbidetan ibilia da: marinel, irakasle, telebista- eta zinema-gidoilari, itzultzaile eta kazetari. Idazten aspaldi hasi zen eta literaturari erabat emana dauka bere jarduna eta euskal literatura garaikidearen idazlerik oparoenetako dugu. Hogeita hamarretik gora liburu argitaratu ditu eta genero guztiak jorratu ditu: haur eta gazte literatura (*George L. Steer. Gernikan izan zen kazetaria*), kronika (*Europako mugetan barrena*), saiakera (*Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan*), ipuingintza (*Laudanoa eta sutautsa*), eleberrigintza (*Piztien itsasoa trilogia*, *Stock 13*) eta poesia (*Haragizko amoreak*), azken hau Omar Nabarro heteronimoarekin.

Ia 10 urte igaro dira jada *Stock 13* polemikoa argitara eman zuenetik, eta ordutik hona, 2010ean *Haragizko amoreak* (Susa) poesia-bilduma salbu, literaturan berezko sorkuntza lanik ez diogu ezagutzen Edorta Jimenez idazle bizkaitarrari. Denbora honetan, Hemingwayren inguruko proiektu handi batean eta Euskal Memoriaren urteroko argitalpenetan ibili da buru belarri sartuta eta, horiez gain, hamaika irakurketa egin, hamaika teoria asmatu eta hamaika ideia makinatu ditu. Horien fruitu dira *Ostakarrak lurra ukitzen duen lekua* eleberrri beltza, zeinak (h)ilbeltza bekan aurkeztutako laginean baitauka jatorri eta oinarria. Fikzioaren bidezidorrez baliatuta eta ohiko estilo salatian, azken urteotan Euskal Herrian bizi izan ditugun hainbat gai jorratzen ditu Edorta Jimenezek, tortura, poliziaren indarkeria edo zenbaitzuen ustelkeria kasu.